

FUNTZIOAK

Batzar Orokorra

Batzar Orokorrean Mankomunitatea osatzen duten udal guztietako alkate eta zinegotzi guzti guztiak daude.

Hona hemen Batzar Orokorraren eskuduntzak:

- A).- Estatutu hauen aldarazpena erabakitzea, legez exijitutako betekizunekin.
- B).- Mankomunitatea desgitea erabakitzea.

Osoko Bilkura

Osoko Bilkura Mankomunitatearen gobernu- eta administrazio-organo gorena da. Osoko Bilkuran Mankomunitateko udalerrri guztiek izango dituzte ordezkariak. Udal bakoitzari dagokio euren zinegotzien artean hautatzea, osoko bilkuran, Mankomunitatean kide gisa eurak ordezkatzeko dituztenak, honako proportzio honetan:

- 1.001 eta 2.000 biztanle arteko udalerriek: 3 ordezkari.
- 2.001 eta 5.000 biztanle arteko udalerriek: 4 ordezkari.
- 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriek: 5 ordezkari.

Hautatutako zinegotziak Osoko Bilkurako kide izango dira, eta hitz eta boto eskubidea izango dute bilkuretan. Zinegotzien agintaldia euren izendapena ahalbidetu zuen udal-kargua utzitakoan amaituko da, edo dagokion udalak baliogabetzen badu. Azken kasu horretan, kide berria baliogabetutako kidearen talde politiko berekoa izango da. Udal-hauteskundeak egiten direnean, eta horrek Mankomunitatea osatzen duten udalen osoko bilkurak berritzea dakarrenean, Osoko Bilkurako kideek dagozkien funtzioekin jarraituko dute, euren ondorengoek kargua hartu arte, baina soilik ohiko administrazio kontuotarako, eta ezingo dute gehiengo kualifikatua eskatzen duen akordiorik onartu.

Tokiko Gobernu Batzordea

Tokiko Gobernu Batzordea honako hauek osatzen dute: batzordeburuak eta zenbait kidek; azken horien kopuruak ez du Osoko Bilkurako kideen herena gainditu beharko.

Batzordeburuak libreki izendatu eta bananduko ditu kide horiek, eta izendapenaren berri emango dio Osoko Bilkurari.

Tokiko Gobernu Batzordearen **eskumenak** honako hauek dira:

- Presidenteari laguntzea bere eskumenak gauzatzean.
- Batzordeburuak edo Mankomunitatearen beste organoren batek Batzordearen esku utzitako eskumenak; baita indarrean dagoen legeriak Tokiko Gobernu Batzordeari emandako eskuduntzak ere.

Mankomunitateko presidentea eta presidenteordeak

Mankomunitateko presidentea Osoko Bilkurako kideetako bat izango da, eta bertan aukeratuko da; gehiengo absolutua beharko da idatziz eta ahoz egindako bozketan.

Mankomunitateko presidenteak toki-araubideak alkateei ematen dizkien **eskumen** guztiak edukiko ditu.

Presidenteak bere kabuz izendatu eta kargutik ken ditzake presidenteordeak, Tokiko Gobernu Batzordeko kideen artetik. Presidenteordeek presidentea ordezkatu beharko dute azken hau ez dagoenean, gaixo dagoenean edota bere eskumenak gauzatzeko gai ez denean. Bere izendapenaren dekretuan presidenteorde kopurua zehaztuko da. Horrez gain, presidentea falta denean, azken hau ordezkatzeko jarraitu beharreko ordena ere zehaztuko da.

Informazio-batzordeak

Toki Araubideen Oinarriak arautzen dituen Legearen 20. artikuluan ezarritakoarekin bat, informazio-batzordeen helburua Osoko Bilkuran onartu beharreko gaiak aztertzea, txostenak egitea eta kontsultatzea da, baita alkatearen kudeaketaren jarraipena egitea ere. Artikulu horren arabera, Osoko Bilkura osatzen duten talde politiko guztiek organo horietan parte hartzeko eskubidea izango dute, talde horietako zinegotziak bertaratuta. Tokiko Erakundeen Antolaketa eta Funtzionamenduaren Araudiaren 124. artikuluan ezarritakoarekin bat, informazio-batzorde iraunkorren kopurua eta izendapena Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bidez zehaztuko dira. Bertan, batzordeen osaera zehaztuko da, talde politiko desberdinen arteko proportzionaltasunari egokituta. Informazio-batzorde bakoitzeko zinegotziak nortzuk izango diren jakiteko, talde politiko bakoitzeko bozeramaileak idatzi bat aurkeztuko du eta titular bakoitzeko ordezkari bat izendatzeko eskubidea izango du.